

Udaberriko Bonoen kanpaina “Zuretzat denda bat dena, zure herriarentzat dena da”

Andoaingo Udalak 125.000 euroko balioa duten 2500 bonu jarriko ditu salgai Andoaingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea suspertzeko

- **Bonuak erosteko beharrezkoak diren tiketak maiatzaren 14an eta 15ean banatuko dira Salkin lokalean.**
- **50 euroko bonuak maiatzaren 18tik 22ra bitartean erosi ahal izango dira, 30 euroren truke, SALKINen lokalean.**
- **Bonoak, aurreko edizioan bezala, kolore ezberdinetako txarteletan zatituko dira, komertzio ala negozio mota ezberdinetan erabiltzeko.**
- **Atxikitako establezimenduetan bonuak erabiltzeko epea maiatzaren 18tik ekainaren 30era bitartekoa izango da.**

Andoainen, 2026-05-08. Andoaingo Udalak, Salkin merkatarari eta ostalarien elkartearekin elkarlanean, **2500 bonu** jarriko ditu andoaindarren eskura, tokiko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuen sektorean kontsumo kontzientea sustatzeko. Andoni Alvarez alkateak adierazi du: "Kanpaina honen helburua da Andoaingo merkataritzan, ostalaritzan eta beste zerbitzu batzuetan gastua sustatzea, kontsumo bonuen jaulkipenaren bidez, egungo egoera ekonomikoak eta kontsumo ohitura berriek eragindako galerak arintze aldera".

Kanpaina honetan, berriz ere, parte hartzen duten establezimendu guztien artean ahalik eta banaketa bidezkoena lortzeko, **bonuak koloretakoak** izango dira. Bonu bakoitzak 10 euroko 5 txartel izango ditu, eta txartel bakoitza 5 euroko bi zatitan banatuko da. Lau kolore egongo dira: **berdea, janari-dendetarako** eta ostalaritzarako (okindegiak, harategiak, arrandegiak, fruta-dendak, edari-dendak, gozotegiak, edari-dendak, tabernak, jatetxeak, kafetegiak); **laranja, modako saltokietarako** (oinetakoak, osagarriak, kirol-dendak, mertzeriak eta bitxi-dendak); **urdina, zerbitzuetarako** (ile-apaindegiak, farmaziak, optikak, liburu-dendak, etxetresna elektrikoak...); eta **horia**, bi txartel, komodin gisa, edozein establezimendutan erabiltzeko.

Bonuek 50 euroko balioa izango dute eta 30 euroko prezioan salduko dira. Bonu bakoitza 10 euroko 5 kupoitan banatuko da, eta kanpainari atxikitako establezimenduetan erabili ahal izango dira.

Establezimendu horiek behar bezala identifikatzeko, berariazko kartela izateaz gain, atxikitako establezimenduen zerrenda osoa emango da bonuak ematearekin batera.

Aldi berean, establezimenduen zerrenda hori salkinen webgunean egongo da ikusgai: **www.salkin.eus** .

Nola eskuratu bonuak

Ilarak saihesteko asmoz, bonuak saldu aurretik, **maiatzaren 14an eta 15ean** tiketak banatuko dira Salkinlokalean (Agustin Leitza kalea, 11). Gehienez bi tike banatuko dira pertsona bakoitzeko, eta horietako bakoitzak bonu bat jasotzeko eskubidea ematen du, baldin eta bonu hori NAN bati lotuta badago.

Adinez nagusi diren eta Andoainen erroldatuta dauden pertsona guztiek maiatzaren 18tik 22ra, edo izakinak agortu arte, erosi ahal izango dituzte bonuak. Horretarako, tiketa eta NAN agiria aurkeztu beharko dituzte (gehienez bonu bat salduko da tiket eta NAN bakoitzeko).

SALKINen arreta ordutegia **goizez (10:00etatik 14:00etara)** eta **arratsaldez (16:30etik 20:00etara)** izango da. **Kreditu-txartelarekin** ordaindu beharko da erosketa, eta ez da eskudirurik onartuko.

Andoaingo Udalak eta Salkinek kanpaina honetan parte hartzera animatu dituzte andoaindarrak, bertako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak suspertzen laguntzeko. *Denda txikiek berebiziko garrantzia dute zure herrian, eta, beraz, zure eguneroko bizitzan.*